



## **PABLO GONZALEZ ASKATU! PRENTSA ASKATASUNAREN ALDE**

Gaur, maiatzaren 3an, nazioarteko prentsa askatasunaren eguna da; eta, Gernikatik, bere bonbardaketaren 86.urteurrenaren testuinguruan ahotsa altxatu nahi dugu Pablo Gonzalez elantxobetar-nabarniztar kazetariaren gatibutza salatu, eta bere berehalako askatasuna aldarrikatzeko.

Ez da kazetari bakarra gatazka guneetan atxilotu eta espetxeratua izan dela; gaur egun hamarnaka kazetari daude, Pablo bezala, hainbat herrialdeetan preso.

Honen aurrean, zera adierazi nahi dugu:

**1.- Pabloren berehalako askatzea exijitzen dugula.** Bere egoeragatik kezkatu, Euskal Herrian bere hurkoekin egotea ezinbestekoa baita.

**2.- Prentsa askatasunaren aurkako erasoak da.** Gatazka guneetan sarri ibilitakoa da Pablo Gonzalez. Eta horrelako testuinguruetan gertatzen dena ezagutzeko eta informatzeko lan egiteko eskubidea, eta gu informatuak izateko eskubidea dugu. Eta ulertezina da urte pasatxo honetan guztian bizitakoa.

**3.- Elkartasuna adierazten diogu Pablori, bere senide eta hurbilekoei** eta herrikideei. Beste herrialde bateko ezarpen judizial pean gatibu egotea muturreko egoera bat da, eta oinarrizko eskubideak urratzen ari zaizkie.

**4.- Free Pablo Gonzalez kanpaina** abiatu zuten hainbat kazetarik (tartean Euskal Herriko kazeta ugariren langileak) eskaera batekin: argitu dezatela gertatutakoa eta berehala utz dezaten aske. **Bat egiten dugu** dinamikarekin.

**5.- Kritika zorrotza** plazaratu nahi dugu Europar Batasunak eta Espainiar gobernu zentralak aurkezten ari diren utzikeriagatik. Besteak beste, Poloniari ahalbideratzen ari dietelako **Oinarrizko Eskubideen Karta ez betetzea**, nahiz eta dokumentu hori loteslea izan EB-ko herrialde guztientzat.

**Gernika Memoriaren Lekuko plataforma  
Gernika-Lumon, 2023ko maiatzaren 3an.**